



## Hizkuntza-paisaia eta ingurune digitala euskaratzeko dirulaguntza: 2026ko oinarriak

### 1.- Oinarrien xedea.

Oinarri hauen xedea da Bortzirietako merkataritza eta ostalaritzako establezimenduen, elkarten eta enpresen hizkuntza-paisaia eta ingurune digitala euskaratzeko dirulaguntza emateko modua arautzea.

### 2.- Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea 2026ko urriaren 31ra artekoa izanen da.

### 3.- Dirulaguntzaren gaiak.

Diruz lagunduko dira 2026ko ilbeltzaren 1etik 2026ko urriaren 31ra arte egindako gastuak. Diruz lagunduko dira euskara hutsean dauden errotulazio elementuak, eta euskara hutsean edo bertze hizkuntza batzuetan (beti euskarari lehentasuna emanez) dauden irudi korporatiboarekin zerikusia duten elementuak eta ingurune digitala osatzen dutenak:

- Errotuluak: kanpoko eta establezimendu barruko errotulu finkoak, baldin eta jendaurreko gunean badaude. Ez dira diruz lagunduko izen propio, toponimo, akronimo eta abizenak baino adierazten ez dituzten errotulazio elementuak.
- Irudi korporatiboko elementuak: bisita-txartelak, identifikazio-zigilua, poltsak, kutxak...
- Ingurune digitala: webguneak, online dendak, APP-ak eta .eus domeinua.

### 4.- Onuradunak.

Dirulaguntza hau hartu ahal izanen dute helbide soziala Bortzirietan duten pertsona fisiko edo juridikoek, edota jarduera ekonomikoa Bortzirietako lokal batean gauzatzen dutenak.

Onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Zergen ordainketa eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
2. Bortzirietako udalekin edo mankomunitatearekin ordaindu gabeko zorrik ez izatea.
3. Diruz lagundutako elementuak zuzen idatziak egotea eta akats gramatikalik ez izatea.
4. Euskaraz eta bertze hizkuntza batzuetan dagoelarik, lehentasuna euskarari ematea, kokapen, neurri edo trinkotasunari dagokionez.
5. Diruz lagundutako elementu horiek erabiltzea.
6. Eskatzen den dokumentazioa ezarritako epean aurkeztea.

Errotulazio eta irudi korporatiboko elementuen kasuan, Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitateak doan eskainiko die itzulpen eta aholkularitza zerbitzua onuradunei.

## 5.- Dirulaguntzaren ezaugarriak eta zenbatekoa.

Dirulaguntza hauek 2026ko aurrekontuen dirulaguntzen sailaren kargura joanen dira, zehazki, *hizkuntza-paisaia eta ingurune digitala* izeneko partidara. Eskaera guztiak batu eta mankomunitatearen 2026ko aurrekontuetan kontzeptu honetarako aurreikusi den diru esleipena gainditzen badute, diru esleipen hori eskatzaile guztien artean banatuko da, eta lehentasuna emanen zaie euskara hutsean sortutako gastuei. Horretarako, 2.000 €-ko aurrekontua dago.

Honela banatuko da kopuru hori:

| Diruz lagunduko direnak | Euskara hutsean              | Euskaraz eta bertze hizkuntza batzuetan |
|-------------------------|------------------------------|-----------------------------------------|
| Errotulazioa            | <b>%50</b><br>500 € gehienez | <b>%0</b>                               |
| Irudi korporatiboa      | <b>%50</b><br>120 € gehienez | <b>%25</b><br>60 € gehienez             |
| Ingurune digitala       | <b>%50</b><br>350 € gehienez | <b>%50</b><br>250 € gehienez            |
| .eus domeinua           | <b>%100</b><br>30€ gehienez  | <b>%100</b><br>30€ gehienez             |

Eskatzaileek dirulaguntzaren eskaera bakarra egin beharko dute, nahiz eta bertan hainbat elementuren gastuak bildu.

## 6.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Deialdiaren informazioa eta eskaera orriak nahiz eranskinak eskuragarri egonen dira mankomunitatearen webgunean eta egoitza elektronikoan

(<https://bortzirriak.eus/dirulaguntza/1080/>)

Aurkeztu beharreko dokumentazioa honakoa da:

- Eskaera orria behar bezala beteta (I. Eranskina).
- IFKren eta nortasun agiriaren fotokopia.
- Fakturen eta ordainagiriaren fotokopia (2026ko ilbeltzaren 1etik 2026ko urriaren 31ra bitarteko faktura datarekin).
- Errotuluaren edo irudi korporatiboaren argazkia edo webgunearen, online dendaren edo aplikazioaren esteka.
- Onuradunaren aitortpena, zergen ordainketa eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela adierazten duena (I. Eranskina).
- Onuradunaren aitortpena, Bortzirietako udalekin edo mankomunitatearekin ordaindu gabeko zorrik ez duela adierazten duena (I. Eranskina).
- Eskatutako dirulaguntzen aitortpena, helburu honetarako administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako dirulaguntza guztiena. Adierazi beharko da eskaerak ebazteke edo ebatzita dauden; azkeneko kasu horretan, erantsiko da kontzesioari buruzko ebazpenaren kopia (I. Eranskina).

Eskaera eta dokumentazioa Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitatearen egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztuko dira:

<https://mbortziririak.sedipualba.es/carpetaciudadana/tramite.aspx?idtramite=10552>

Helbide honetara eramanda edo posta zertifikatuz ere aurkeztu ahalko dira: Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitatea, Andutzeta 15, 3º. 31760 Etxalar. Edo urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein lekutan.

## **7.- Aurkeztutako dokumentazioan egindako okerrak zuzentzea.**

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar egun balioduneko epea izanen du jakinarazpena jasotzen duenetik akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez baditu, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

## **8.- Ebazpena.**

Deialdi honetako dirulaguntzak esleitzeko erabakia Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakariak hartuko du ebazpen bidez, euskara teknikariaren txostena ikusi ondotik. Erabaki hori interesatu guztiei jakinaraziko zaie.

Abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikulua betez, emandako laguntzak argitaratu egin beharko dira mankomunitatearen webgunean eta egoitza elektronikoan, zenbatekoa, helburua edo xedea eta onuradunak adierazita.

## **9.- Dirulaguntzaren ordainketa.**

Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, interesatuak eskaera orrian zehaztutako kontu korronte zenbakira eginiko banku transferentzia bidez.

## **10.- Bateragarritasuna.**

Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira bertze erakunde publiko zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin, betiere gain-finantzaketarik gertatzen ez bada.

## **11.- Datuen babesa.**

Datu Pertsonalak Babesteko Arautegia beterik, Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitatea da datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna. Eskatzaileen datu pertsonalak Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitatearen fitxategietan jasoko dira eskatutako zerbitzuak kudeatzeko eta mankomunitatearen berezko eginkizun legalak burutzeko. Interesdunak kontrakorik adierazten ez badu, mankomunitateak datuak epe zehatzik gabe gorde ahalko ditu.

Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, ez bada zerbitzua gauzatzeko beharrezkoa delako edo/eta legediak horrela agintzen duelako.

Eskatzaileak, eskaera izenpetzen duen unetik onespena eta baimen zehatza ematen du, adierazitako helburuen baitan, bere datuak tratatzeko eta komunikatzeko. Bere esku dago sarbide, zuzenketa, ezeztapen eta aurkaritza eskubideak erabiltzea. Era berean, emandako baimena edonoiz ezeztatzen ahal du, baita gai honi buruzko bertze eskariren bat egin ere. Horretarako Bortzirietako Zerbitzuen

Mankomunitatera jo beharko du, helbide honetara: Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitatea, Andutzeta 15, 3º. 31760 Etxalar (Nafarroa) edo posta elektroniko honen bitartez: euskara@bortziriak.eus. Eskatzaileak, eskariari emandako erabakiarekin ados ez badago edo erreklamazio bat jarri nahi badu, kontrol aginte eskudunera jotzen ahal du, kasu honetan, Datuak Babesteko Bulegoa ([www.agpd.es](http://www.agpd.es)).

## **12.- Auzibidea.**

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

## **13.- Errekurtsoak.**

Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haiek betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

- a) Berraztertzeako errekurtsoa, administrazio egintzaren udal organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

Etxalarren,  
Mankomunitateko lehendakaria  
Patxi Castillo Graciarena

**I.ERANSKINA**  
**Hizkuntza-paisaia eta ingurune digitala euskaratzeko diru-laguntzak:**  
**eskaera orria eta aitorpena**

 **Eskatzaileari buruzko datuak**

|                   |  |
|-------------------|--|
| Izen-abizenak     |  |
| NAN zenbakia      |  |
| Helbidea          |  |
| P.K.-Herria       |  |
| Telefono zenbakia |  |
| E-posta           |  |

 **Establezimenduari buruzko datuak**

|                            |            |
|----------------------------|------------|
| Enpresa/Elkartea           |            |
| IFK zenbakia               |            |
| Arduraduna                 |            |
| Helbidea                   |            |
| P.K.-Herria                |            |
| Telefono zenbakia          |            |
| E-posta                    |            |
| Bankuko kontuaren zenbakia | IBAN _____ |

 **Hizkuntza-paisaia edota ingurune digitala euskaratzeko egindako gastuak (adierazi zein hizkuntzetan diren)**

| Elementua | Hizkuntza                                                                                                    | ZENBATEKOA (€) |
|-----------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------|
|           | <input type="checkbox"/> Euskara hutsean<br><input type="checkbox"/> Euskaraz eta bertze hizkuntza batzuetan |                |
|           | <input type="checkbox"/> Euskara hutsean<br><input type="checkbox"/> Euskaraz eta bertze hizkuntza batzuetan |                |
|           | <input type="checkbox"/> Euskara hutsean<br><input type="checkbox"/> Euskaraz eta bertze hizkuntza batzuetan |                |
|           | <input type="checkbox"/> Euskara hutsean<br><input type="checkbox"/> Euskaraz eta bertze hizkuntza batzuetan |                |

 **Aitorpenak (laukitxoak markatzea nahitaezkoa da)**

ESKATZAILEAK ADIERAZTEN DU:

Dirulaguntza Orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikulua 2. eta 3. apartatuen eta 34.5 artikulua edukia irakurri ondoren, ez nagoela horietan ezarritako debekuetako batean ere. Zehazki:

- ☐ Aitortzen dut zergen ordainketa eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ditudala.
- ☐ Aitortzen dut ez dudala ordaindu gabeko zorrik Bortzirietako udalekin edo mankomunitatearekin.

- ☐ Aitortzen dut ez nagoela sartuta dirulaguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.

Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi diru-laguntza eskaerarik egin izanez gero, adierazi ondoko taulan:

| ERAKUNDEA | ZENBATEKOA | EGOERA<br>(Ebatzi gabea, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta) |
|-----------|------------|---------------------------------------------------------------------|
|           |            |                                                                     |
|           |            |                                                                     |

Era berean, edozein erakunderi halako diru-laguntzarik eskatuz gero, mankomunitateari jakinarazteko konpromisoa hartzen du bere gain eskatzaileak.

 **Eskaera**

- Baldintzak betetzen ditudanez gero, mankomunitateak dagokidan laguntza eman diezadala.

(Herria) \_\_\_\_\_, 2026eko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_a

Sinatua,

Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakaria.-  
Andutzeta 15, 3º.-  
31760 Etxalar.-